

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

72

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 20koa, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburordearena, ehizatze gaitasun-azterketetarako deialdia egiten duena 2019. urterako.

Ehiza-baimenaren eta ehizatze gaitasunaren azterketaren uztailaren 29ko 160/2014 Dekretuak agindutakoa betez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoan ehizatze gaitasun-azterketetarako deialdia egitea 2019. urterako.

Bigarrena.– On line egingo dira eskabideak, Internet bidez, pauso hauek emanez:

a) Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren web-orrian sartu, eskabideari dagokion atalean edo zuzen-zuzen helbide honetan: <http://www.nasdap.net/solexamcaza>

b) Dagokion eskabide ereduak bete.

c) Azterketari dagokion tasa ordaindu; ez dira inskribatutzat hartuko tasa ordaindu ez dutenak inskribatzeko amaiera-data baino lehen.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2019ko urtarrilaren 25en amaituko da, biak barne, otsaileko probarako; eta ekaineko probarako, berriz, 2019ko apirilaren 22an hasi eta 2019ko maiatzaren 24an amaituko da, biak barne.

Laugarrena.– Azterketan, test moduko 31 galderako galde-sorta bati erantzun beharko zaio, gehi erreserbako beste 3, baten bat baliogabetzen bada ere. Azterketa gainditzeko, gutxienez 24 galdera zuzen erantzun behar da. Azterketa egiteko denbora 50 minutu izango da gehienez. Azterketako ikasgaiak Ehiza-baimenaren eta ehizatze gaitasunaren azterketaren uztailaren 29ko 160/2014 Dekretuaren II. eranskinekoak izango dira.

Bosgarrena.– Azterketak egiteko tokia, eguna eta ordua honako hauek izango dira:

a) Otsaileko proba:

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Tokia	Letren Fakultatea Unibertsitateko pasealekua 5 Vitoria-Gasteiz	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarrikoko Fakultatea) Eraikin Nagusia Lehendakari Agirre 83 Bilbao	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea Gipuzkoako Kanpusa Oñati plaza 1 Donostia
Eguna	2019ko otsailaren 9a		
Ordua	10:00ak		

b) Ekaineko proba:

Eguna: 2019ko ekainaren 15a.

Ordua: 10.00ak.

Tokia: Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako Campusa).

Oñati plaza 1.

Donostia.

Seigarrena.– Azterketak balioesteko, epaimahai bat eratuko da hiru lurralde historikoetako bakoitzean, otsaileko ariketarako. Ekaineko ariketan, aldiz, Arabakoa baino ez da eratuko. Epai-mahaikideak hauek izango dira:

a) Arabako Lurralde Historikoa:

– Mahaiburu titularra: Carlos Marín Ruiz, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Ehiza eta Arrantza ataleko burua.

– Ordezko mahaiburua: Ainhoa Ubillos Mendiluce, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuko Ehiza eta Arrantza ataleko teknikaria.

– Mahaikide titularra: Jorge Belasko Mora, Arabako Lurraldeko Ehiza Federazioaren lehendakaria.

– Ordezko mahaikidea: Rafael Ángel González Bartolomé, Arabako Lurraldeko Ehiza Federazioaren idazkaria.

– Idazkari titularra: Emérita López de Alda Gil, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuko burua.

– Ordezko idazkaria: Joseba Amurrio Urraca, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Administrazio Kudeaketa Ataleko burua.

b) Bizkaiko Lurralde Historikoa:

– Mahaiburu titularra: Javier Monge Gómez, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingu-rune Naturaleko Saileko Ehiza eta Arrantza Ataleko burua.

– Ordezko mahaiburua: Alaitz Ibañez arias, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingu-rune Naturaleko Saileko Ehiza Fauna eta Arrantza Zerbitzuko teknikaria.

– Mahaikide titularra: Francisco Javier Barona González, Bizkaiko Lurraldeko Ehiza Federa-zioaren lehendakaria.

– Ordezko mahaikidea: Iñaki Barbero Osa, Bizkaiko Lurraldeko Ehiza Federazioaren bokala.

– Idazkari titularra: María González Bordagarai, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingu-rune Naturaleko Saileko Informazio eta Aholkularitza Zerbitzuko burua.

– Ordezko idazkaria: Itziar Mateos Olabarrieta, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingu-rune Naturaleko Saileko administrazio orokorreko teknikaria.

c) Gipuzkoako Lurralde Historikoa:

– Mahaiburu titularra: Iñigo Mendiola Gómez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustape-neko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko Departamentuko Basanimalien eta Basalandareen Zerbitzuko burua.

2019ko urtarrilaren 7a, astelehena

– Ordezko mahaiburua: Ion Iñaki Zulaika Isasti, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko Basanimalien eta Landareen Zerbitzuko landare babestuen arduraduna.

– Mahaikide titularra: Joxe Angel Zaldua Iparragirre, Gipuzkoako Ehiza Federazioaren lehendakaria.

– Ordezko mahaikidea: Ramón García Carbonell, Gipuzkoako Ehiza Federazioaren lehendakariordea.

– Idazkari titularra: Alfonso Akarreta Rodríguez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko idazkari teknikoa.

– Ordezko idazkaria: Ainhoa Insausti Etxeberria, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko Administrazio Orokorreko teknikaria.

Zazpigarrena.– Azterketa egiteko ordaindu beharreko tasa 10'89 eurokoa izango da.

Zortzigarrena.– Ebazteko prozesua honako hau izango da:

a) Epaimahaiek Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari bidaliko diote, ehizatze gaitasunaren azterketa egiten den egunetik gehienez zazpi egun naturaletan, beren ustez azterketa gainditu dutenen eta gainditu ez dutenen proposamena.

b) Proposamen horren arabera, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak behin-behineko zerrendaren berri emango du, gehienez proposamena jaso eta astebetara. Behin-behineko zerrenda hori argitara emango da Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru-aldundien webguneetan eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarenean.

c) Interesdunek probaren galdera jakin batzuen balioaren aurka egin dezakete, gehienez ere proba egiten den egunetik hiru egun naturaleko epean.

d) Aurkaratze horiek, jasotzen direnetik hiru egun naturaleko epean ebatziko dira, eta, horren ondoren, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak zazpi egun naturaleko epean aginduko du behin betiko zerrenda argitaratzea.

e) Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta interesdunek gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango dute ebazpenaren aurka, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik aurrera. Proba gainditzeko duten izangaien zerrendak jendaurrean jarriko dira Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundien webguneetan eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarenean.

Bederatzigarrena.– Agindu honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 20a.

Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea,
BITTOR OROZ IZAGIRRE.